



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

AITOR AGIRRE ALKORTA

**zinegotziak**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2012ko maiatzaren 23an, arratsaldeko zazpitan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta udalburua izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURETKO AKTAK ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

196/2012 Dekretua

222/2012 Dekretua

223/2012 Dekretua

224/2012 Dekretua

225/2012 Dekretua

239/2012 Dekretua

240/2012 Dekretua

242/2012 Dekretua

245/2012 Dekretua

302/2012 Dekretua

305/2012 Dekretua

306/2012 Dekretua

309/2012 Dekretua

312/2012 Dekretua

313/2012 Dekretua

323/2012 Dekretua

327/2012 Dekretua

328/2012 Dekretua



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

297/2012 Dekretua  
298/2012 Dekretua  
299/2012 Dekretua

340/2012 Dekretua  
342/2012 Dekretua  
348/2012 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**HIRUGARRENA.- MOZIOAK**

**HONDAKINEN INGURUKO MOZIOA**

Udalon helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintzea da, eta Lizartzako udala, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarron bizi kalitatea zaindu nahi du, zalantzarik gabe.

Hau honela, eta hiri hondakinei lotzen bagatzaizkio, Tolosaldeako Mankomunitatean urteak daramatzagu gure hiri hondakinak bildu eta Sasietako zabortegira jaurtitzen eta horren ondorioz, gure hondakinek eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. Hori ez da inolaz ere zuzena. Ez da zuzena ere, birziklatzeko saio guztiak baztertu eta gure hondakinak erraustera bidaltzeko asmoa, arazo bati arazo handiago batekin erantzutea arriskutsua izateaz gain antzua baita.

Lizartzatarrok arazo bat dugu hondakinekin egiten dugun kudeaketan. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitua dago. Gaur egungo gure birziklatze maila %30etik nekez igotzen da, %80 birziklagarria denean. Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina datuak gordinak dira, hondakinen %70 baino gehiago zabortegietara botatzen ari gara.

Ez dugu organiko gramu bakar bat ere biltzen modu berezitan. Eta errealitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hori onartezina da.

Arazoa dugu bai, baina konponbidea ere bai. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu, Berastegiko airea, mendiak eta errekek garbiak nahi ditugu. Horregatik, eta Lizartzan gauzak ongi egiten dakizkigulako arazoari muinetik helduko diogu.

Lizartzatarrok hondakinen murrizketari ekin behar diogu lehenik, aukera handiak ditugulako gure herrian sortzen dugun hondakin organikoa gure etxeetan eta gure herrian tratatzeko inora bidali gabe. Berrerabiltzearen eta birziklatzearen aldeko urratsak ere eraginkorragoak egiteko erabakiak ere hartuko ditugu.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Lizartzan gauzak ongi egiten badakizkigulako zero zabor politikarantz abiatuko gara, pausu txiki batekin emaitza ezin hobekoak lortuko ditugu.

Hau nola, udalbatzak zera proposatzen du:

1. Lizartzako udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta bilketa sarean ez sartzeko hondakin organikoa etxeko konpostaje edo konpostaje komunitario bidez kudeatuko du.
2. Lizartzako udalak Mankomunitatearekin batera adostuko du konpostaje kanpaina zabala egitea herriko familien artean.
3. Lizartzako udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromisoa hartzen du eta mankomunitatearekin batera bilketa efiziente eta bideragarria adosteko bidea egingo du, horretarako lantaldea osatuz.
4. Udalak etengabeko urratsak emango ditu Lizartzako zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.
5. Lizartzako udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskaera egiten dio, 2013 urterako, zaborraren tasak sortze-bidezko finantziazioaren baitan izan daitezen, dagozkion erabakiak har ditzan.

Hondakinen inguru mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**LEHIBERRI MOZIOA**

**IZENBURUA:**

Tolosaldea Garatzenentzat 2011ko Espainiako aurrekontuetan izendatuta zegoen diru partida Espainiako Gobernuak ekar dezan.

**OSOKO BILKURAN BIDERATZEKO ARRAZOIA:**

Tolosaldea Garatzenek eskualdeko enpresak laguntzen eta berrikuntzako proiektuak sustatzen urteak daramatza. 2011. urtean hitzartuta zegoen miloi bateko euroko partida izendua ez da iritsi eta, bere ordez, Espainiako Gobernuak Ikerkuntza, Berrikuntza eta Garapeneko Estatuko Idazkariaren faxa helarazi du. Diru-laguntza



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

izendu hori ezinbestekoa da 2012an LEHIBERRI ZENTROAREN eraikitze fasea eta berarekin dakarren eta martxan dagoenberrikuntzako proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Partida izendu hori berehala jaso ezean, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa kolokan geratuko da

PROPOSAMENA:

- 1- Lizartzako Udalak Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraiatzan du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.
- 2- Lizartzako Udalak Espainiako Gobernuari hitzartuta zeuden partida izendua Tolosaldea Garatzen-eri helaraztea eskatzen dio. Beraz, Espainiako Gobernuari bere kabuz eta inongo adostasunik gabe hartu berri duen erabakia atzera bota dezala eta izendatuta zegoen dirua lehen bai lehen ekar dezala eskatzen dio.

Lehiberri Mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### TOPA (TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE) MOZIOA

2011ko azaroa ezkerotik, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak, TOLOSALDERAKO OSASUN ARRETA EREDU BERRIA inposatu digu herritarroi. Proiektu berri honetan, Izaskungo Ama Espezialitateetako Anbulatorio publikoa isteko erabakia hartzen da, espezialitate guztiak Asuncion Klinika pribatu-kontzertatuaren esku geratuko direlarik. Horren ondorioz, osasun sistema publikoa kaltetua eta ahulduta geldituko da Tolosan zen Tolosaldean, Andoainen eta Legorretan.

Bestetik, Tolosa da sare publikoko Eskualde Ospitale Publikoa ez duen Euskal Herriko eskualde bakarra, eta egitasmo honekin horrela jarraituko du.

Tolosaldeako eskualdeak indar eta pisu demografiko nahikoa du, herritarroi egokia izango zaigun kalitatezko zerbitzu bat eskainiko digun ESKUALDE OSPITALE PUBLIKOA izateko. Beste eskualdeetan bezalaxe.

Hori guztiagatik, mozio hau aurkezten da, honako hau ONAR DEZAN:

- 1.- Asuncion Klinikaren publikazioa eskatzen dugu. Eskualdeak kudeaketa erabat publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa izan dezan.



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

- 2.- Osasun zerbitzu honek, beste eskualdeetan eskaintzen denaren mailako kalitatea bermatzea eskatzen dugu.
- 3.- Afera honek eragiten dien alde guztien artean (Osasun Saila, langileen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundia, eskualde horretako Udalak, plataformaren ordezkariak) alderdi anitzeko mahaia osatzea eskatzen dugu. Mahai honek definituko duen klinikaren publikazioa (epeak, zerbitzua hobetzeko eta garatzeko plana, langileen subrogazio zein erregulaziorako bidea).
- 4.- Mahai honek publikazioa egiteko moduaren gaineko akordioa eskuratu beharko du lehenbailehen. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak sinatutako konbenioaren ondorioz hartzen ari den neurri guztiak bertan behera utz ditzala eskatzen dugu: espezialitateen anbulategia hustea horren adibide.
- 5.- Klinikaren egitura enpresarialak egindako balizko iruzurrak eta legez-kanpokoak ikertzea.

TOPA (TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE) mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

1512-2012: NAFARROAREN KONKISTAK 500 URTE EUSKALDUNON SOBERANIAREN AZKEN SUGARRA GOGOAN

#### **PUNTUAK:**

1. Lizartzako Udalak, duela 500 urte Nafarroaren, hau da, gure Estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egin nahi die. Hortaz, duela bost mende Tuteran, Lizarran, Burgin, Donibane Garazin, Garruzen, Noainen eta bertze anitz lekutan gure libertatearenugarra babesteko borrokatu zirenak omendu nahi ditu, eta euskaldun guztion Nafarroa bizirik dela aldarrikatzen du.
2. Udala honek bat egiten du "1512-2012" Agiriarekin zein 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin. Bere ahalekin arabera, laguntza eskainiko die.

1512-2012: Nafarroaren konkistak 500 urte Euskaldunon Soberaniaren Azken Sugarra Gogoan Mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

#### **4.- LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA**

2012ko martxoaren 23ko Bilkura Nagusian, Lizartzako Udalaren lanpostuen zerrendaren aldaketa onartu zen.

Erabaki horretan, Garbitzaile lanpostuaren sailkapena C titulazioa taldera aldatzen zen, C2 azpitaldera.

Dena den, Udal honen plantilla organikoan, lanpostu hori E Taldean sartuta dago.

Guzti hori dela, eta burututako akatsa konpondu ahal izateko, proposatzen da:

Garbitzaile lanpostuaren sailkapena, E Taldean sartuta uztea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

#### **5.- 2011 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA**

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2011 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

#### **6.- HERRI LANETARAKO LANGILE BATEN DENBORALDIKO KONTRATAZIORAKO OINARRIAK**



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Lizartzako Udalak, herriko lanetarako, denboraldi baterako eta lanaldi laburtuan, langile bat kontratatu behar du.

Betebeharreko baldintzak:

- a) Lizartzan erroldatuta egotea
- b) Euskeraz jakitea
- c) Langabezian egotea
- d) Gidatzeko baimena B1 edukitzea
- e) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denegunean 16 urte beteta izatea, eta derigorrezko erretirorarako adina ez gainditzea.
- f) Indarrean dagoen araudiaren arabera legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren baten ez egotea, beti ere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.

Lanpostuaren gutxieneko zereginak, hauek izango dira:

- a) Pintaketak
- b) Jardineritza
- c) Kale Garbiketa
- d) Postuari dagozkion eginkizunak egoki betetzearren, eskatutako eta agindutako lanak egitea.

Lanpostuaren baldintzak:

- a) Iraupena: 3 hilabete
- b) Lanegun eta ordutegia: Astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik 13:00 bitartean.
- c) Soldata: 930,36 € gordina/hilean.

Herri lanetarako langile baten denboraldiko kontrataziorako oinarriak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu dira.

## **7.- INFORMAZIOA**

### **ESKOLA BERRIAREN INGURUAN**

Alkateak, hitza harturik, eskola berriaren inguruko informazioaren berri eman du:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Maiatzaren 22an, URA Ur Agentziarekin burututako bileran hitzegindakoaren arabera, badirudi, gaur egungo eskolaren inundabilitatearen arazoa konponduta dagoela. 2011 urteko datu hidraulikoak kontuta hartzen direnez, eskola zaharra dagoen lekuan, berria egitea egongo da.

Datorren astean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera burutuko da, eskola berria gauzatzeko, Lizartzako Arau Subsidiarioen egin behar diren aldaketaz hitzegiteko.

Guzti hori kontutan hartuta, Hezkuntza Sailarekin bilera eskatu da, eskola berriaren gaia bideratu ahal izateko.

#### ARRATEKO ZUBIA ETA ESKOILERA

Aurreago aipatu den bileran jakinerazi zutenez, A-2 Zerrategiko eremua garatu ez dela eta, Arrateko zubi berria eta eremuaren eskoilera atzera bota ditu URAk.

Zubiaren berrikuntza aspaldiko kontuan denez, egiteko eskatu zitzaien eta beraien erantzuna, egingo dela, baino noiz ez dakitela. 2013ko aurrekontuetan ez dutela dirurik jarriko adierazi dute.

#### SANEAMENDUA

Saneamendu lanak hasi dira, eta kontratistak jakinarazi duenez, obrak bideratzeko, Arrateko Zubia itxi egin behar dute.

#### MAHAI ETA AULKIAK

Mahai eta aulki berriak eskatu dira, 100 aulki eta 25 mahai. Pixkanaka gehitzen joango dira.

#### KOADROAK JARTZEKO SISTEMA

Kulturgunean, erakustaldiak egiteko, kuadroak zintzilikatze sistema jarri da.

#### EURITEEN KALTEAK

Aurreko urteko azaroaren 5 eta 6an izandako euriteak sortutako kalteak konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak 14.609,83 €-ko dirulaguntza eman du. Finantzaragari diren kalteak guztira: 39.053,28 €-koa izan dira. Hau da: % 37,41.





**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Horren aurrean, aztertu beharko da laguntza hori nola bideratu beharko den.

KULTUR ASTEA

Jakinarazten da, datorren astean, MAIATZAREN 28tik EKAINAREN 2 bitarte, Kultur Astea burutuko da.

**8.- BESTELAKOAK**

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzi t'erdia direnean, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK  
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia